

## **PRENTSA OHARRA**

### **Talentu ikertzailea kudeatzen egiten duen lana aitortu dio BC3ri Europako Batzordeak**

- *BC3, Basque Centre for Climate Change, “HR Excellence in Research” zigilua jasotzen duen Euskadiko hirugarren erakundea da..*
- *Bruselako Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak Europan langile ikertzaileak hautatzen, kontratatzen eta finkatzen erreferentzia diren erakundeei ematen die errekonozimendu hori.*

**[Bilbon, 2015eko uztailaren 22an]**

BC3, Basque Centre for Climate Change zentroari “HR Excellence in Research” zigilua eman dio Europako Batasunak langile ikertzaileak kudeatzeko bere estrategiarengatik eta politikarengatik. Une honetara arte Euskadin sari hori jaso duen hirugarren erakundea da; beste biak IKERBASQUE eta Achucarro dira.

Aipamen hau Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak ematen du, eta, era horretara, ikertzaileak hautatzen, kontratatzen eta finkatzen Europan erreferentzia diren erakundeak saritzen ditu. BC3k errekonozimendua zientzialariak kudeatzeko bere politikari eta estrategiari esker lortu du, eta horien oinarriak ebaluazio zehatza, etika eta jokabide kode zorrotza jarraitzea eta talentu zientifikoa kudeatzeko prozesu osoaren etengabeko hobekuntza dira.

BC3 2013ko azaroan atxiki zitzaion zientziaren esparruan aritzen diren erakundeen printzipioak, jokabide-kodea eta gomendioak jasotzen dituen Ikertzaileen Europako Gutunari. Errekonozimendu honek printzipio eta gomendio horiei dagokienez prozesu aurreratuenak dituzten erakundeak saritzen ditu. Gaur egun Estatuko 24 ikerketa-zentro daude Ikertzaileen Europako Gutunari atxikita, eta, BC3 atxiki ondoren, Euskadi kudeaketa-polo gisa finkatu da talentu zientifikoaren bikintasunean.

#### **BC3, ikerketako bikaintasunaren aldeko apustu arrakastatsua**

BC3 diziplina anitzeko ikerketa-zentroa da, eta hainbat herrialdetako 42 ikertzailek dihardute bertan. 2008an sortu zen Eusko Jaurlaritzaren BERC programaren barruan, eta Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduta, klima-aldaketaren kausa eta ondorioen epe luzeko ikerketa bikaina bultzatzeko. BC3ko profesionalek egiten duten ikerketari eta partaide dituzten zientzia-kooperazioko sareei esker,

Zentroa mundu mailako erreferentzia da gaur egun. Bide horretan, 2015ko ekainean klima-aldaketaren ekonomian eta politikan munduko lehen 5 Think Tank-ik eraginkorren artean kokatu zuen. ICCCGk. Klima-aldaketak munduaren jasangarritasunean duen eraginari buruzko ebidentzien argitan, mundu osoko gobernuek neurri politikoak, ekonomikoak eta sozialak hartu dituzte sortutako kalteak aurreikusi eta atzeratzeko eta babesa eta berreskuratze-ekintzak ezartzeko. Klima-aldaketa agenda politikoen lehen postuetan dago, eta BC3ren lan-esparruetako bat da, hain zuzen ere, zientziatik ekarpena eginez politika horiek aberastea eta Planeta babestea helburu duen arau-esparru koherente baten barruan aplikatuko direla erraztea.